

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

kontzejuek 2020an sustatu zituzten obrak gauzatzeko diru-laguntza justifikatzeko agirien aurkezpen epea luzatzeari buruzko akordioa

Zigoitiko Udalak, 2020ko ekainaren 18an egindako ohiko osoko bilkuran, kontzejuek 2020an sustatu zituzten obrak gauzatzeko diru-laguntza justifikatzeko agirien aurkezpen epea luzatzea erabaki zuen. Akordioaren testua erantsi da:

“Ikusi da Alkatetzaren 47 zenbakidun ebazpena, 2020ko otsailaren 4koa, Zigoitiko udalerriko kontzejuei 2020rako inbertsio gastuetarako diru-laguntzak emateko deialdia egiten duena.

Eskabideak eta agiriak aurkezteko gehieneko epea 2020ko apirilaren 8a zen.

Aintzat hartu da martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria, martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak emandako idazketan, sektore publikoa osatzen duten erakunde guztien baldintzak eta epeak etetea agintzen duena.

Ikusita 2020ko maiatzaren 23an argitaratu dela maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretua, 9. artikuluan, 463/2020 Errege Dekretuak etendako administrazio-epeei buruzkoan, honako hau adierazten duena: “2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, etendako administrazio-epeen zenbaketa berriro hasiko da”; beraz, eskabideak aurkezteko azken epea 2020ko ekainaren 26ra arte luzatuko da.

Kontzejuei dagozkien obrak egiteko diru-laguntzen oinarriak arautzen dituen udal-ordenantzen 7. artikuluekin bat etorritik, diruz lagundutako obrak justifikatzeko dokumentazioa 2020ko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da.

Pandemiak eragindako gizarte- eta osasun-krisiaren ondorioz, diru-laguntza emateko epeak eta kontzejuek sustatutako obren lizitazio-espeditenteak izapidetzeko epeak nabarmen atzeratu dira, eta, ondorioz, ezin izan dira diruz lagundutako obrak deialdiaren epean egin.

COVID-19ri aurre egiteko, gizarte- eta ekonomia-arloan premiazko neurri osagarriak hartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 54. artikulua honako hau ezartzen du:

«1. Diru-laguntzak emateko prozeduretan, diru-laguntzak eta laguntza publikoak deitzeko eta emateko aginduak eta ebazpenak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.1 artikuluan aurreikusitakoak, 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzeko unean jada emanda egongo zirenak, aldatu ahal izango dira, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epeak luzatzeko eta, hala badagokio, gauzatze hori justifikatu eta egiaztatzeko, nahiz eta zegokien oinarri arautzaileetan jasota ez egon.

Ondorio horietarako, organo eskudunak justifikatu beharko du, soil-soilik, alarma-egoera indarrean dagoen bitartean ezin dela diruz lagundutako jarduera egin, eta amaitu ondoren geratzen den epea ez dela nahikoa diruz lagundutako jarduera egiteko edo hura justifikatu edo egiaztatzeko.

(...)

3. Aldaketa horiek egitea ez dago 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. paragrafoan aurreikusitako betekizunen mende, eta ez dio eragiten xedapen gehigarri horren 1. paragrafoan ezarritako epeen eteteari».

Azaldutako aurrekarien eta eskubideen oinarrien arabera, Udaltzak honako hau erabaki du aho batez:

LEHENENGOA. Diru-laguntza justifikatzeko agiriak aurkezteko epea 2021eko martxoaren 31ra arte luzatzea, Zigoitiko Udalerriko kontzejuei 2020rako inbertsioetarako diru-laguntzak emateko deialdiaren barruan. Deialdi hori Alkatetzaren 47. zenbakiko Ebazpenaren bidez onartu zen, 2020ko otsailaren 4an.

BIGARRENA. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

HIRUGARRENA. Erabaki hau Zigoitiko udalerriko kontzejuei jakinaraztea.”

Ondategin, 2020ko ekainaren 25ean

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA